

# Arraina izozteko betekizunak lasaitu egin dira Erresuma Batuan - FSA 2012

Elikagaien Segurtasunerako Agentzia Britainiarrak (FSA) iragarri du Erresuma Batuan gordinik jateko hazten diren arrain-espezieak ez direla zertan izoztu erabili aurretik. Izozteko neurriak lasaitu egin dira Eskoziako Elikagaien Segurtasunerako Agentziak egiaztatu egin duelako parasitoek ez dutela arriskurik eragiten arrain-haztegiatiko izokinetan.

EFSAk 2010ean arrainetako parasitoei buruz argitaratutako zientzia-iritziaren ondoren, Europako Batzordeak arrainaren higieneari buruzko legeria berrikusi zuen eta baimena eman zien estatukideei bestelako xedapenak ezartzeko arrain gordinaren izozte-betekizunak aplikatzean, betiere erabakia arriskuan oinarrituta bazegoen.

Xedapen horri jarraiki eta azken zientzia-ebidentziak oinarritzat hartuta, Elikagaien Segurtasunerako Agentzia Britainiarrak ebatzi du, kontsumitzaileak irentsitako parasitoek eragin ditzaketen gaixotasunetatik babesteko, ez dela beharrezkoa arrain-haztegiatetik etorritako espezieak izoztea.

FSAREN EBAZPENA (<http://www.food.gov.uk/news-updates/news/2012/july/fishfreeze>)

EFSAko BIOHAZ Panelaren iritzia: Parasitoak arrainetan (<http://www.efsa.europa.eu/it/scdocs/doc/1543.pdf>)

Europako Batzordearen Gida, arrantza-produktuetan parasitoak ekiditeko  
**ELIKA**: Granja Modelo, z/g. 01192, Arkauté (Araba). Telefonoa: 945 122 170. Faxa: 945 122 171.  
([http://ec.europa.eu/food/food/biosafety/areas\\_cyprus/20111214\\_scfcah\\_guidance\\_parasites\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/food/food/biosafety/areas_cyprus/20111214_scfcah_guidance_parasites_en.pdf))  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)